

# URUMEATIK BIDASOARA EPAIPIDE BIDEA

TESTU ETA ARGAZKIAK



Mikel Arrizabalaga  
(Donostia-Eibar, 1957)

GR-121a Gipuzkoa osoari bira ematen dion ibilbide luzea da eta etapa desberdinetan banaturik dago. Etapa horietako bi Aiako Harriko lurretan osatzen dira, ekosistema desberdinak ezagutu, tontor nagusien magaletatik igaro, estazio megalitiko ugari bisitatu eta ekonomia-jarduera desberdinek utzitako arrastoak ezagutzeko aukera eskaintzen dutelarik. Lehen zatia Urumearen ertzean dagoen Hernaniko Ugaldetxo auzotik abiatu eta Aritxulegiko tuneleraino hedatzen da, eta bigarrena, berriz, tunelaren gainetik segi eta Bidasoa ibaiaren ertzean kokatzen den Behobiaraino.

Egunkaria, Berria eta Gara egunkarietan, Pyrenaica, Euskal Herria eta Nora aldizkarietan eta Euskadi Irratian mendiarekin zerkusia duten makina bat artikulu eta kolaborazio egin ditu. Sua argialetxearekin zenbait liburutan kolaboratu du.

[Hirumugarrieta eta Txingudiko badia Txurrunurutik](#)





Epai hitzak esanahi desberdinak ditu eta ibilbide luze honek hortik hartzen du Epai-pide izena, alde batetik mendilerro ugari gurutzatzen baititu bere itzuli osoan eta bestetik, lur hauekako biztanleek etxerako egurra moztu egiten dute, epaitza eginez alegia. Ibilaldia bitan banatu dugu eta bakoitzak erabakiko du dena batera edo bi egunetan egin nahi duen. GRaren bide-seinale zurigorriek lagunduko digute bide zuzena aukeratu eta aurrera segurtasunez egiten, baina bide horren alboetan altxatzen diren hamabost tontorretara igotzeko aukera baliatuko dugu, eta horrela, ibilaldi balizatuari beste pizgarri bat gehituko diogu.



## GR-121 E14 EPAIPIDE IBILBIDEA UGALDETZO - ARITXULEGI

**LUZERA:** 19,1 km. · **IRAUPENA:** 06:15  
**FORMA:** LINEALA · **METATUTAKO IGOE-  
 RA:** 1.154 m. · **METATUTAKO JAITSIERA:** 717 m.  
**HASIERA:** UGALDETZO (HERNANI)  
**AMAIERA:** ARITXULEGI (OIARTZUN)

Hernaniko Ugaldetxo auzoan etapa honi hasiera eman eta berehala maldan gora jarriko gara. Lizarregiko zabalera iristean, Urdaburuko magalean zehar hedatzen den bide zabaletik Pagosardeko atsedenguneraino helduko gara. Puntu honetara heltzean, bide balizatua utzi eta gure eskuinetik ateratzen den xendan barrera Urdaburuko tontorrera igotzen hasiko gara. Urdaburu Txiki igaro, lehen haizak inguratu eta pagadian murgilduko gara tontorrera heldu aurretik. Etorri garen bidetik Pagosardera itzuliko gara eta bide nabarmenak Malbazarreko gurutze-bideraino eramango gaitu eskuinetik igotzen den aldapatik abiatuz.

Berritutako lehen aterpe txikiaren ondotik pasa, eskuin aldetik ikusiko ditugun saihesbideak laga eta Aldurara igotzeko bidea hartuko dugu. Ibilaldi honen bigarren tontorra zapaldu eta gero, bidera itzuli eta honen magalean marrazten den pista erosotik erraz egingo dugu aurrera. Bigarren aterpetxoaren ondotik pasa

eta bidea maldan behera jarri bezain fite, Per-txel mendiaren magaletik azkar galduko dugu altuera. Ezpalauringo lepora ailegatzean hirugarren aterpetxo ikusiko dugu, atsedene txiki bat hartzeko leku aproposa. Bide-seinaleek erakusten diguten norabidean jaisten jarraituko dugu eta berehala helduko gara Idurietako lepora, azken aterpetxo ikusiko dugun lekura hain zuzen ere. Puntu honetan, ezkerretik Saroberrekara doan bidea utzi eta pista zabalean zehar jarraituko dugu.

## Hirumugarrieta edo Harritulangañan makulua eta gurutzea landuak dituen Orreagako aintzinako mugarria dago

Altuera galtzen hasita eta Aiako Harriko parajetan murgildurik, Zariako tontorrera igoko gara eta gero, Kausoroko lepotik Munagirre tontorrera igotzeko aldapa pikoari ekingo diogu. Gertu dagoen Bianditzeko lepora jaitsiko gara segidan eta hemendik, Hirumugarrieta edo Harritulangañako parajeetara. Hamar mairu-baratz eta bi tumulu dituen multzoa aurkituko dugu, Oartzun, Goizueta



eta Lesakako udal-barrutiek bat egiten duten tokian. Bertan oso berezia den mugarrria, makulua eta gurutzea landuak dituen Orreagako aintzinako mugarrria hain zuzen. Egun, inguru hauetan hainbat lekutan aurki daitezke, garai batean lur hauen jabegoa noren eskuetan zegoen adierazle dira. Gertu ikusiko dugun Bianditz mendi ezagunari bisita azkar bat egingo diogu berriro hona bueltatzeko. Monumentu megalitikoak eta mugarrria atzean utziz, Nafarroako eta Gipuzkoako lurrak mugatzen dituen hesiaren paraleloan Errengako lepora jaitsiko gara eta gertu dagoen estazio megalitiko bisitatu ondoren, izen bera duen tontorrera igo eta aldapa bizian jaisten hasiko gara. Epaipide bidearekin berriro bat egin eta azken zatia maldan behera beteko dugu Aritxulegiko tunelera helduz.

### GR-121 E15 EPAIPIDE IBILBIDEA ARITXULEGI - BEHOBIA

**LUZERA:** 15,2 km. **IRAUPENA:** 05:10  
**FORMA:** LINEALA **METATUTAKO IGOERA:** 304 m. **METATUTAKO JAITSIERA:** 907 m.  
**HASIERA:** ARITXULEGI (OIARTZUN)  
**AMAIERA:** BEHOBIA (IRUN)

Aritxulegiko tunelaren gaineratik abiatu eta Aiako Harriko tontor nagusienak biltzen dituen mazizoaren magaletik hedatzen den xendan barna egingo dugu aurrera. Inguru hauek, Euskal Herriko lurralde zaharrenak dira. Orain dela 300 milioi urte, Arkaiko eta Lehen Aroan, egungo Euskal Herria itsasoz eta honek eragin handia izan zuen gure mendien eta haranen sorreran, eta ondorioz, gure arbasoen bizimoduak. Duela 250 milioi

Erlaitzera igotzen. Atzean Aiako Harria mazizoa



urte, Lehen Aroa amaitzear zegoela, Aiako Harria itsas azpitik sortu zen, Urtsuia, Adi eta Iratiko mendiekin bi uharte sortuz, beste lurralde guztiek urpean jarraitu zutelarik. Mazizoa, berez, granitozko mendi-puska batez osaturik baitago (granitozko batolitoa) eta bere oina Artikutzako urtegitik San Martzialgo baselizaraino hedatzen da. Ekialdeko hegia leunagoa da baina mendebaldekoa, berriz, oso malkartsua.





Bianditzeko tontorretik Errenga eta Aiako Harriko mendiak

## Txurrumurru eta Irumugarrietako amildegiak, ezproiak eta korridoreak, paraje malkartsuak bezain ederrak dira

Aritxulegiko tunelaren gaineratik, mazizo aldera zuzentzen den xendatik aurrera egingo

dugu. Pixkanaka altuera hartuko dugu eta Enarriren magalera iristean, Epaipide bide balizatu utzi eta zuzenean igotzen jarraituko dugu. Alanbrezko hesiaren paraleloan doan bide nabarmenak Erroilbideren horma bertikale-ra gerturatuko gaitu. Laster, Arrisoro izeneko lepora iritsiko gara eta ezkerretik, beherantz zuzentzen den xenda hartuko dugu. Jaisten hasi eta gorantz begiratu, paraje malkartsu horiek oraindik zeharka ezinak irudituko zaizki-

gu. Poliki igotzen hasiko gara, baina oraingoan inguruaren itxura aldatu egingo da erabat, orain arte bidezidor markatuak eta malda leunak izan ditugu lagun, hemendik aitzina, berriz, xenda haitzen artean galtzen da eta parajeak deskubrituz egingo dugu aurrera. Bat batean, haitz batzuen artean ateratzean, Txurrumurru eta Irumugarrietako amildegiak, ezproiak eta korridoreak, paraje malkartsuak bezain ederrak ikusiko ditugu. Paisaia zoragarri honetaz





### Txurrumurruko tontorra Erroilbidetik

gozatu ostean, martxan jarri eta tontorreraino egin beharreko bidea kontu gehiagorekin egin beharko dugu, lurra bustirik dagoenean batik bat. Tontorrera heltzean, Erlaitz kirol elkarateak jarritako buzoia eta ikuspegi zabala.

Tontorra atezan utzi eta gandorretik aurrera egingo dugu belarretan marrazten den xendatik, baina berehala lehen oztopoarekin egingo dugu topo, Lizarretako gaina, gure eskuez baliatzea eskatzen duen bost

metroko harresia (I goi.). Lehen zailtasuna gaintu eta Txurrumurruren oinera jaitsiko gara segidan, ibilbidearen zatirik delikatu eta arrikutsuena den lekura hain zuzen ere. Hoge metroko desnibela duen igarobide bertikal eta airetiko hau gaintuzeko (II goi.), uztaiez eta haitzean tailatutako zuloz baliatu beharra dago, beraz trebezia eta lasaitasuna behar dira. Lehen zati hau pasa eta gero, tximinia bat izango dugu hurrengo erronka eta

eskuez baliatuz erraz igoko gara tontorrera. Zeharkaldia osatzeko, azken tontorretara igotzea faltako zaigu, Txingudiko badiaren talaia paregabea diren Irumugarrietara, Putzuetako gaina eta Muganix tontorretara hain zuzen ere. Gandorrean, iparralderantz joko dugu tximinia txiki batetik jaitsiz eta segidan belarretatik zabaltzen den xenda segituz erraz igoko gara tontor horietara. Oso nabarmena den bide zabaletik erraz jaitsiko





gara Elurretzeko lepora, baina lepora heldu aurretik, bertatik datorren Epaipide bidearen marka zurigorriekin bat egingo dugu.

**Soroetako muga edo Iheslarien Harria:**  
**“Hemendik ihes egitea bizitzarekin ordainduko da”**

Elur-zuloaren ondotik pasa eta Aireko Palazioa izenez ezagunak diren aurrien ondora jaitsiko gara, garai batean meategietako bulegoak eta meatzarientzako ostatu izan ziren edifizioen aztarnak. Goian ikusiko dugun Irufagoeta izena duen muinoa inguratuko dugu segidan. Hemendik aurrera bidea leuna, oso ibilia eta nabarmena da eta gertu ikusiko ditugu Erlaitzeko tontorra eta Pagogañako muinoa. Erlaitzera igotzeko maldaren hasieran kotxeak aparkatzeko lekura iritsiko gara. Erlaitzera igotzen den xendatik gotorlekuaren hondakinen ondora igoko gara. XIX. mendean frantziar inbasioei aurre egiteko zortzi gotorlekuz osatutako proiektu bat abian jarri zuten, baina azkenean hiru besterik ez ziren eraiki: San Marko, Txoritokieta eta Guadalupeko San Henrike. 1891n hasi zituzten Erlaitzeko gotorlekua eraikitzeko lanak baina hurrengo urtean eten egin zituzten. Gerora, eta muga zaintzeko asmoz, diktadura frankistak bunker batzuk eraiki zituen. Langileen barrakoiak izandakoei bizkarra eman eta Erlaitzeko tontorrera doan xenda bilatuko dugu.

Tontorra utzi eta Lapurriturriko lepora jaitsiko gara maldan behera garo artean. Apar-kalekura heldu aurretik, Soroetako muga edo “Iheslarien Harria” izenez ezaguna den mugarriaren ondotik pasako gara. Nonbait, XVIII. mendean muga zaintzen zuten soldaduei desertatzeak zekarren arriskuaz ohartarazteko egina. Serapio Mugicaren ustez, harri hau XVIII. mendekoa da eta itxuraz ihesaldiak edo

Errengako estazio megalitikotik Munagirre eta Zariako mendilerroa



Espalaurringo aterpetxoa

desertzioak ekiditeko jarri zen. Bertan hauxe jartzen du: “Hemendik ihes egitea bizitzarekin ordainduko da”. Igoera erraza da eta denbora gutxi beharko dugu Pagogañako aztarnen ondora iristeko. Erlaitz eta Endarlatsako dorreekin batera eraiki zuten hirugarren karlistada amaitu eta muga beste matxinadetatik babesteko. Gerra Zibilean kalte handiak izan eta gero, abandonatu egin zuten, baina ondoren, II. Gerrate Mundialean, inguru hauek lagun askoren igarobide bihurtu zen. “Red Comète”ko kideek, lurrera botatako hegazkinetako pilotu aliatuei laguntzen zieten muga pasatzen. Haiei esker, ehunka iheslari salbatzea lortu zuten. Gure historiarekin lotutako leku hauek atzean utzi eta bide balizatuak San Martzial ermitaraino eramango gaitu eta bertatik Behobiara jaitsiko gara, Bidasoa ibaiaren ondora.

